

GAURKO

KREDOA

1

Bertso-antzeko batzuk
moldatzera noa,
inguruan badago
zer esan nahikoa.
Hau da nahastea,
jaunak,
hau da hau lainoa!
Nok igarri zer dan
gaur
askoren kredoak?

4

Ez da errez bakoitza
nor dan jakitea,
hain errez aldatzen da
modaz txaketea!
Gaur agertzen jatzuna
aixkide maitea,
bihar aurka daukazu
nun eingo kaltea.

7

Orain bakoitzak
dauka
norbere kredoak,
dana neurritz eginda,
baita be Jainkoa.
Gaurko jentemodua
ez da ez tontoa:
Hasiera ta azkena
norbere kolkoa.

10

Gaurko kredo "barri" hau
amaitu baino lehen,
beste egi bat esan
behar dogu hemen:
Neu gora ta neu behera,
neu azken ta lehenen;
beti neu, in sekula
sekuloren amen!!!

2

Batzutan ondo datoz
ebanjelioak,
ezin leitekez galdu
pribilejioak.
Holakoen kredoak
a ze balioak!
Hasi orduko datoz
patrifilioak.

5

Norbera ez besteak
danak diktadore,
norbera goian bada,
orduan dotore.
Inoren arlo ta lan
dana da folklore,
ai, nireak daukien
usain ta kolore!

8

Egiak egi dira
baina ez betiko,
komeni bada hartu,
ez bada, ostiko...
Gaur ez dago ezinik,
ai ene, mutiko!
Sinistu nahiz ukatu
danok katoliko!

3

Gaur dira katoliko
ta bihar ateo,
bardin hartu ta itzi
komeni ezkerro.
Gaur eskuman
daukazuz
aupadaka bero,
ta bihar ezkerrean,
ta norantza gero?

6

Asmau-ahalak asmatzen
mila gizon listo,
nundikan buztartuko
Mao eta Kristo.
Fede onez ez ei da
inortxo be gaizto;
"Ateo fededun" da
gure Txilibristo!

9

Lehen baegoan lege
ta kontzientzia,
baina gaur nausi dago
gure zientzia.
Nahi bada ta ahal
bada,
bada lizentzia;
kredoaren ardatza
da komenentzia.